

## **Etzi eta Pitz (VII): Oier Guillan**

Franco hil zen urtean jaioa, 1975ean, Donostian. Errenteriakotzat du bere burua, eta hamabost urte dira Oiartzunen (Gipuzkoa) bizi dela. Sortzailea, sormen kolektiboaren su-piztailea. Su izan nahi, eta su izan. Egunotan Ean (Bizkaia) da, Metrokoadroka kolektiboko (10 urte bete ditu) beste hamalau lagunekin batera, performance bat prestatzen. Larunbatean, hilaren 14an, Eako kaleetan ikusi ahalko da *Zanbuia!* lana estreinakoz (17:30), eta ziur aski, azkenekoz. Guillanen lerroak eta azpillerroak *Zauri Bolodia* liburuan irakur daitezke (Txalaparta, 2018). Oso pozik dago liburu horrek sorrarazi dituen erreakzioekin. Euskarazko antzerkigintza berriaz badu zer esana Guillanek.

### **Ekainaren 16an, Eztena antzerki jaialdiaren 10. urteurrena ospatu zenuten Errenterian. Nola joan zen?**

Oso ondo joan zen, oso hunkigarria izan zen arrazoi askorengatik. Izan zen erokeria bat. Orain arteko formatua guztiz puskatu genuen, zerbait ezberdina egin nahi genuen. Eztenak etapa bat itxi du, eta ez dakigu trantsizio bat datorren edo zer. Ospakizun bat izan zen, geure buruarena eta antzerkilariena, oro har. Jaialditik pasatutako jende guztia saritzea erabaki genuen, sarien dinamikari buelta emanez. Sektore osoa eta jendearen ahalegin guztiak saritu genituen, aitortu genuen. Euskal Herri osotik etorri zen jendea, eta oso hunkituta zegoen. Parodia bat ere izan zen, lau ordukoa, dibertigarria eta ganberroa.

### **Ez da ezer hiltzen, transformatu baizik. Antzerki liburuak argitaratzeko plataforma bilakatuko al da orain Eztena?**

Sei liburu argitaratu ditugu Eztenaren bidez. Okurritu zitzaigun nolabaiteko ondare bat uzteko bidea, edo Eztenaren transformazio bat emateko beharra. Ikusten dugu Eztenaren beharra badagoela, nola edo ahala. Eztenak jarraitu ala ez, antzerki testuen bilduma horrek bete dezake Eztenak betetzen duen hutsunea beste modu batean: beste dramaturgia batzuen aldarrikapena eta topagunea izatea. Liburuen ideiak jarraituko duela uste dugu.

### **Liburuak editatzen, argitaratzen eta zabaltzen aritu izan zara beste lagun batzuekin batera Edo! argitaletxean. Amaitu da Edo! Haren bidea nola laburbilduko zenuke? Zer balantze egiten duzu?**

Horrelako proiektuak amaitzen dira, baina arrastoa uzten dute. Uste dut Edo!-k arrastoa utzi duela. Liburuen kasuan errazagoa da, objektua gelditzen delako eta liburuak bizitza propioa hartzen dutelako. Esperientzia apasionantea izan zen niretzat. Pentsatzen dugu zenbaitetan proiektuak luzerako izango direla. Batzuetan hori akatsa da, eta ondo dago asimilatzea proiektu bat buka daitekeela, eta ez oso berandu. Edo!-rekin hasieratik kontziente izan ginen buka zitekeela. Ezin izan genuen saihestu amaiera. Azkenean, bospasei urteko esperientzia izan zen. Asko ikasi nuen. Liburuek markatu zuten bide bat, eta hor aritu ginen batzuek jarraitu dugu liburugintzan beste proiektu batzuetan.

### **Zerk asetzen zaitu gehiago zuk idatzitako liburu bat argitaratzeak ala gertuko pertsona baten lana argitaratua ikusteak, baldin eta lan horretan asko sinisten baduzu eta laguntza eman badiozu?**

Ezin zaio horri erantzun, ez dago gehiago edo gutxiago. Esperientzia berdin baten alde

ezberdinak dira. Nahiz eta neure burua sortzailatzat dudan, eragitea ere sortzea da. Kultura hartu-eman bat bezala ulertzen dut. Bakarrik pentsatzen egongo banintz, neure lana modu egozentriko batean plazaratzea, eta itxoiten egotea etengabe besteen arreta... nik ez duten horretan sinesten. Hortik badago zerbait, eta hori norberak kudeatu behar du. Hartu egiten dudan bezala, sentitzen dut beharra emateko. Eta emateko modu bat da itzalean eragile izatea eta saiatzen laguntzea besteen proiektuak. Mikelazulo kultur elkartetik nator, eta han zerbait ikasi eta egin banuen izan zen, hain zuzen ere, besteen lanean nola lagundu ikastea. Niretzat horrek jarraitzen du izaten kultura ulertzeko parte.

### **Udaberrian Zauri Bolodia liburua atera zenuen. Zer feedback jaso duzu irakurleen aldetik?**

Nire harriurarako, oso feedback ona. Komunikabideen aldetik eta irakurle taldeetan interesa piztu du, eta horrek harritu egin nau liburu berezia delako, eta sailkatzen erraza ez delako. Bestetik, feedback handia jaso dut irakurleen aldetik, eta hori ez dut bizi izan beste liburu batzuekin. Hiru irakurketa mota egon dira. Batetik, oso pertsonala, pertsonaia nagusiaren hariarekin hunkitu eta identifikatu dena. Bestetik, euskal kulturari buruzko gogoeta gisa irakurri dutenak daude, eta sortu du interes bat maila horretan. Hirugarrena teatroen irakurketa da. Haien oso barrutik sentitu dute liburuan kontatzen dena, benetan kontatzen delako antzerkia bizitzeko modu bat barrutik. Oso identifikatuak sentitu dira, eta gauza politak eta sakonak iritsi zaizkit haiengandik. Beldurra nuen ez ote zen izango antzerkia oso barrutik bizi dutenentzako liburua. Fuerteena haiena izan da, baina ez hori bakarrik. Bestela zaila da ulertzea izan duen harrera, lehen edizioa agortzekotan baitago.

### **Esaldi esanguratsu asko irakur daitezke Zauri Bolodia liburuan. Horietako batek dio: "Memoria da justizia poetiko posible bakarra".**

Ezin da aurrera begiratu, memoria egin gabe. Horregatik kezkatzen dit hainbeste memoriaren gaiak. Liburuan horrelako esaldi kontundente asko daude, eta bakarka entzuteak grazia egiten dit. Handinahiak iruditzen zaizkit batzuk, baina liburuko pertsonaiaren jolasaren barnean sartzen dira. Antzerkiaren gaian argi ikusten da memoriarena; sortzen dira sortzaile berriak, euskal antzerkia egoera indartsu batean dago duela hamabost urtekoarekin alderatuta. Dramaturgia experimental gero eta gehiago dago. Talde berri batek, bulkada experimental handia izanda, ez du bizi izan Antzerkiola Imaginarioa zer izan zen. Eta zaila da transmisioa egitea. Pena da ezin dutelako jaso, kontra egiteko bada ere. Antzerkian garrantzitsua da transmisioa, apurketak sortzeko etorkizunari begira eta gauza berriak sortzeko. Ez bada transmisioa ematen, erdarara joateko erraztasun handiagoa dago. Memoria etorkizuneko proiektu ausartak sortzeko tresna bat da.

### **Liburuan aipatzen duzu azkeneko hamarkadatan egin den euskarazko antzerkigintzaren lana bildu beharko litzatekeela, bereziki itzalean gelditu dena.**

Hori ziur aski kulturgintzako arlo askotara eraman liteke. Beste batzuk garatuago daude; adibidez, bertsolaritzak garrantzi handia ematen dio dokumentazio zentroaren sorrerari, eta hori ez da kasualitatea. Xenpelar dokumentazio zentroak egiten duen lana itzela da. Arlo guztiek beharko lukete horrelako zerbait. Armiarmak Interneten egiten duen lanak ere bide bat erakusten du literaturaren arloan. Kultur eragiletzan aritu izan naizen urteetan, ikusi izan dut urte batzuetan sortzaile eta lan ugari sortu zirela, gauza interesgarriak zeudela, eta ez zirela

inon jasotzen edo dokumentatzen ari. Komunikabideak parte txiki bat kubritzera iristen ziren, ez zirelako iristen. Horrek egonezina eta kezka sorrarazi izan dit.

## **EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak egitura sendoago bat izateko zer falta da? Zergatik ez zaio laguntzen erakundeen aldetik?**

Sortzen denean proiektu bat oso azpitik, modu herrikoian, jende askok parte hartzen duenean... instituzioek mesfidantza izaten dute eta defentsibara egoten dira. Esan beharrean "zer dago hemen? Goazen laguntzera", justu kontrakoa gertatzen da, eta pena iruditzen zait. Antzerkiaren kasuan ez da egitura arazoa. Egitura arazoak beste gabezia batek islatzen ditu: kultur politikaren euskararen aldeko estrategia baten falta. Ahots asko sortzen ari dira horren inguruan. Zergatik ez da egiten euskal kulturaren aldeko apustu indartsu bat? Arte eszenikoaren kasuan, tradizio propioa Ipar Euskal Herrian dago (ikertu eta asimilatu beharko litzateke). Erdaraz existitzen dira arte eszenikoak, bertsolaritzan ez bezala. Euskarazko antzerkiak Hegoaldean eta Iparraldean lehiatu behar du erdararen neurrira egituratutako merkatu egitura sistema batekin. Eta kasik euskarazko antzerkia arrotza da bere etxean, erdarazkoak jaten duelako ia merkatu osoa. Gurpil zoro bat dago, eta etiketatze gaiztoak daude. Publiko gutxiarekin etiketatu izan da euskarazko antzerkia, eta gezurra da. Kalitate faltarekin ere etiketatu izan da, eta gaiztoa da. Badago lekua denerako. Erakundeek errealitatea ikusi beharko lukete.

Bestetik, EHAZErekin bat nator esaten duenean behar dela dokumentazio zentro bat. Hor sartzten da dena: testuak, saiakerak, Internet, bideoak. Antzerkigintzak beharko luke bere Badok.eus. Dokumentazio zentro fisiko bat ere beharko litzateke, hiru dimentsiotako lan bat, ez bakarrik paperean eta pantailan.

## **Zauri Bolodia pertsonaiak, zure alter egoak, hala dio: "Kulturgintzari buruzko aferetan, ez nator beti bat neure buruarekin". Zer kontraesan topatzen dituzu zure barnean?**

Sentitzen naiz ildo batean, iritzi batzuk ematen ditut. Baina badirudi iritzi batzuk ematen dituzunean, horiek betiko direla, eta zure aurka bilaka daitezke. Badirudi ez dagoela espaziorik esperimenterako eta porroterako. Ezta eboluziorako ere. Gustatzen zaigu esperimenterazio hitza, baina gero ez dugu onartzen porrota. Probatzea, eta ez asmatzea. Ikastea, eta hurrengoan zer gertatuko da? Ideien arloan ezta ere. Garai monolitikoak bizi izan ditugu, enfrentatuak. Ideia batzuetan kokatu behar zinen, eta ematen zuen hori higiezin zela. Ildo batean sentitzen naiz, baina esperimenteratzeko eskubidea aldarrikatzen dut. Gauzak probatu eta ez asmatzeko margena utzi behar da. Hori bera onartzea kontraesan bat da niretzat, ideia borobilak bota izan dituen pertsona bat izan naizelako. Liburuaren diskurtsoan ahalegin bat hortik doa.



Argazkilaria: Unai Huici

**Eztenako ekaineko ekitaldian bezala, aritu izan zara egun bakarrerako ikuskizunak prestatzen, jakinda ez dela gehiago errepikatuko. Nola bizi izan dituzu egun bakarreko emanaldi indartsu horiek, klimax horiek?**

Egun bakarrekoak ez da hainbesteko arazo izaten. Duela gutxi Miren Gaztañagari entzun nion esaten, eta guztiz bat nator, antzerkia gehiago dela prozesua estreinaldia baino eta ondoren datorrena baino. Bi fase egoten dira antzerkian: sormen prozesua, eta hori izaten da brutala eta hor bizitzen da kultura. Eta gero estreinaldia dago, hor ikasten da, baina beste gauza bat da. Egun bakarreko emanaldiak gehienetan esperientzia herrikoiak izaten dira edo sozialak, eta nahiz eta gehiago edo gutxiago funtzionatu, sekulako balioa izaten dute. Eta prozesua indartsua baldin bada, emaitza asimilatzen duzu hobeto. Zailagoa da estreinaldi batera iristea prozesu baten ostean, sentitu ez duzula asmatu eta edukitzea 30 emanaldi aurretik. Hori bai da gogorra. Askotan aurrera egin behar duzu dagoenarekin eta defendatu, eta halakotan askotan ez duzu argi hartu dituzun erabakiak onak diren ala ez.

**Oholtza baten gainean denetarik egin duzu: kantatu, dantzatu, errezitatu, barnetik biluztu eta arropa kendu literalki... Zer falta zaizu egiteko oholtza baten gainean?**

Ez dakit, auskalo. Baina sormen prozesuetan falta zaizkit gauzak egiteko. Orain Kaffka antzezlanean nabil aktore. Esperientzia berria izaten ari da, eta gustuko dut konfort egoeratik ateratzea. Erronka indartsua izaten ari da aktore hutsa izatea.

**Uztailaren 14an Ean zer egiteko asmoa duzue Metrokoadroka kolektiboko lagunek?**

Esperimentu bat izango da. Eako Poesia Egunak-eko antolatzaileekin oso harreman estua izan dugu hasieratik. Lehen emanaldia Mikelazulo bezala egin genuen aspaldi, Letren kilimak emanaldia. Metrokoadrokak hamar urte betetzen ditu aurten, eta iruditzen zitzaigun polita zela egitea esperimentu bat haiekin elkarlanean. Metrokoadrokan parte hartu duen jende guztia gonbidatu dugu. Askok ezin izan dute etorri. Baina hamabost lagun egongo gara Ean,

elkarbizitzan. Sei egunetan prestatuko dugu performance bat. Behin bakarrik egingo da.

**Bizitza mugimendua da. Zauri Bolodiak hala dio liburuan: "Espero ez nuenean espero ez nuen lekuan espero ez nuen norbaitek esan zidan espero ez nuen zerbait espero ez nuen moduan". Izango ditugu horrelakoak etorkizunean?**

Espero dut baietz. Zorionez, behar dut harritu, ataketan egon eta erronka berriak deskubritu. Bestela ez luke zentzurik hainbeste ahalegin egiteak. Ezustekoa ematen ez denean, probokatu. Jarri zeure burua egoera deserosoetan. Kreatziorako ezinbestekoa da hori. Aipatu duzun esaldi hori Su izan nahi antzezlaneko sormen prozesuan idatzitakoa da. Adibide on bat da ikusteko collage handi bat dela liburua.

**Beste esaldi bat liburutik azpimarratua: "Egin dezagun iraultza inori esan gabe, egin dezagun iraultza egiten ari garela aldarrikatu gabe!".**

Oso zaila da hori egitea. Hain mediatizatuta gaude... Eta gure lanean zeozer egin orduko plazara atera behar zarenean aurkeztera diskurtso bat sortu behar duzu egiten duzunaren inguruan. Gustatuko litzaidake sortzea, eta gutxiago agertzea. Batzuetan zaila da hori. Gehienetan onartu egin dut dagoena eta jolastu, antzerkiaren parte izango balitz bezala. Hori, batetik. Eta, bestetik, inportantea da esaldia eguneroko bizitzara ekarrita. Oso militantziatik egiten dugu egiten dugun lana. Agertzen garenean izebergaren punta da. Itzalean lan asko egiten da, ideologia asko dago, eta arrisku asko daude. Hor dago benetan interesgarria: itzalean egiten den horretan. Horrek balio dezake bizitzako edo gizarteko beste edozertarako. Euskal Herrian agerikoa da hori. Iraultza txiki eta handi asko badaude, hori da herrietan jendeak sartzen dituen ordu horietan eta ematen duen guzti horretan. Nik jarraitzen dut hunkitzen Korrika ikusten dudak bakoitzean edo antzeko ekitaldiak ikusten ditudanean. Hor dago magia eta sormena. Apusturik handienak ez dira ozen esaten direnak baizik eta itzalean egiten direnak.

**Aipatu duzu militantzia. Euskaraz aritu izan zara sormenean ia beti, modu deliberatuan. Etxean gaztelania jaso zenuen amaren aldetik. Baina euskaldun aktiboa izan zara beti. Ekintza politiko bat dago hor?**

Nahiko nuke iristea une bat non hori ez den ekintza politiko bat. Kendu nahiko nuke pisu hori gainetik. Nire helburua da euskaraz normaltasunez eta arazorik gabe bizi eta lan egin ahal izatea. Antzerkian, esaterako, erdarak markatutako sistema baten barnean, euskaraz aritzea erabakitzen duzunean, guztiz politikoa da ekintza hori. Sekulako ahalegina dago hor. Ander Lipusek bi hizkuntzatan egiten zituen antzezlanak, eta une batean erabaki zuen Artedrama sortu eta euskara hutsean aritzea. Ximun Fuchsek antzeko pauso bat eman du duela gutxi. Sormen prozesu bat euskara hutsean egitea euskaraz estreinatzeko, oso politikoa da. Eta politikoa da ez soilik zentzu ideologiko batean, baizik eta bizitza ulertzeko moduan, zentzu zabal batean.

Bestetik, nik oroitzen dut euskaraz hasi nintzela idazten. Baina gaztetxoa nintzela, erdarara pasatu nintzen talde batekin lehen fanzineak ateratzen hasi ginenean, Erreterian. Mikelazulon lanean hasi nintzenean, bertako arduradun Txokolo Gurrutxagak planteatu zidan euskara hutsean idatzi behar nuela. Esan zidan euskaraz idazten duzunean gauzak beste modu batean sentitzen dituzula, beste leku batetik egiten duzu egiten duzuna. Hor erabaki nuen euskara hutsean sortzea aurrerantzean, nahiz eta lagun erdaldun asko izan. Topatzen dira moduak

elkarlanerako. Ikusi ditut gerora inguruko erdaldunak euskarara gerturatzeko, pausoak ematen eta ikasten.

### **Kazetaritza ikasketak egin zenituen. Zer oroitzapen duzu?**

Pertsona polit batzuk ezagutzeko aukera eman zidan. Baina garai hartan onena herri komunikabideetan parte hartzen hastea izan zen. Horietan egin nituen praktikak, nire kabuz.

### **Kazetaritza lanak egin dituzu. Ueberan literatur atarian ere ari zara. Zer iritzi duzu kazetaritza ogibideaz?**

Ogibide bat gehiago da. Alde apasionanteak ditu, baina oso nekagarriak ere bai. Ikusten dut jendea etapak erretzen dituela, batez ere erredakzioetan. Oso exigentea delako ordutegi aldetik, estres aldetik... Ez da lanbide erraza denbora luzez mantentzeko. Nik aspaldian urrun ikusten dut kazetaritza.

### **Euskarazko kazetaritzan prekarietatea dago. Eta sortzaileen munduan zer esanik ez. Euskal Herriko futbol jokalariek batzuek, aldiz, urtean 4,5 milioi euro baino gehiago irabazten dituzte urtean. Ez al dago desoreka handiegia hor?**

Noski. Prekarietateaz asko hitz egiten dugu euskarazko kulturagintzan. Prekarietatearen testuinguru orokor batean dago hor. Inguruan begiratzen duzu, eta egoera oso kezkarria da. Guri dagokigu guretik egitea, baina testuinguru zabalago batean kokatu behar dugu. Hego Euskal Herrian kultura ez dago batere prestigiatuta. Ipar Euskal Herrian askoz prestigiatuago dago kultura eta sortzailearen figura, baina aldi berean hizkuntza gutxituak suntsituta daude. Ipar Euskal Herrian eta Frantzian kultura bai, baina euskara erabat baztertuta dago. Ipar Euskal Herrian egon izan naiz lanean, baita Frantzian ere, eta aldea oso nabarmena da, baldintzetan eta errespetu sozialean; ez zara hippy nazkagarri bat kulturaren lan egiteagatik, baizik eta langile bat gehiago. Hego Euskal Herrian, aldiz, zentzu horretan oso espainolak gara.

### **Hego Euskal Herriko gizartean zer pisu du kulturak?**

Uste dut kulturak pisu handia duela, euskal kulturak pisua duelako. Kultura topagune, adierazgune eta ekintza gune oso garrantzitsua da. Hemen kultura desprestigiatua baldin badago, Espainiako toki batera joaten zara eta ikusten duzu han egoera beldurgarria dela. Katalunian hobeto daude. Baina Galizian, adibidez, egoera oso gogorra da. Euskal Herrira itzuliz, gauza miragarriak gertatzen dira askotan. Ez dugu asimilatzen gertatzen den guztia. Ez dugu gaitasunik argazki bat ateratzeko arte diziplina guztietan egiten denari, eta kulturaren ikuspegi sozialago batean. Ekintza politiko batzuen inguruan sortzen diren mugimendu kulturalak ere indartsuak dira, hemen dagoen mobilizatzeko gaitasuna eta auzolanerako gaitasuna sekulakoa da. Euskal Herrian talde prozesuek oraindik indar bat daukate, beste leku batzuetan ez bezala.



### **Antzerki ikastaroak ematen hasi zara Javier Barandiaranekin batera. Zer moduz joan dira?**

Esperientzia txiki batzuk egin genituen lehenago, Miss Karaoke-ren ostean. Probatzen hasi gara. Aurreneko saiakera serioa Oiartzunen egin genuen. Gero Barandiaranek eta biok eman ditugun hiru ikastaroak oso ondo joan dira; ariketa interesgarria izan da kodifikatu egin behar izan dugulako aurretik egindakoa. Transmittitu beharrak jartzen zaitu toki batean, non definitu egin behar duzun egiten duzuna. Patroi eta formula batzuk sortu behar dituzu. Kontzientzia batera eraman gaitu egiten dugunaren inguruan. Asturiasen, Gijonen, tailerra beteta egon zen, plaza guztiak beteta. Eta amaitu nuen negarrez, jendea asko murgildu baitzen. Esperientzia ederra izan zen.

### **Sortzaile gazteak ausardiaz ikusten duzunean zer sentitzen duzu?**

Beti daude gazte interesgarriak arriskatzeko prest. Gauza da askotan ez ditugula ikusten. Zortea dut azkenaldian antzerkian jende gazte asko ezagutzen ari naizelako. Haietako batzuekin lan egiteko aukera izan dut. Uste dudana da orain ateratzen diren gazteek topatzen dutela beste panorama bat euskal antzerkigintzan, eta hori da interesgarria. Gu hasi ginenean zeuden erreferenteak erdarazkoak ziren, eta egiten ziren euskarazko emanaldiak ziren konpainia profesionalenak (lehenbizi gaztelaniazko bertsioa egiten zuten, eta gero euskarazkoa). Eta testuak ia betik kanpokoak ziren. Salbuespenak egon dira, baina gutxi.

Egungo panoraman, beste plaza batera irteten ari dira gazteak, eta hori ekartzen ari da gazteek arriskatzeko duten berezko joera euskaraz egitea. Dantzerti ere hor dago, eta lan interesgarria egiten da. Jende gaztearekin kontaktuak egotea apasionantea da niretzat.

### **Sortzaileetatik aparte, kultur teknikariak, programatzaileak... daude eta aipatu dituzu *Zauri Bolodia* liburuan. Zein hausnarketa egiten duzu?**

Oso pasionala eta malaletxe handikoa izan naiz gaiarekin. Eta liburuan matizatu egin nahi izan dut. Argi itzal asko daude, teknikarien aldetik eta sortzaileen artean ere bai. Bakoitzak bereari begiratzen dio. Topatu izan dut jende asko kultur teknikari edo programatzaile lanetan, benetan ahaleginak egiten gauzak beste modu batean egiteko, eta batere babesik gabe. Ahalegin pertsonalak topatu izan ditut. Badaude kultur teknikari eta programatzaileak benetan maite dutenak haien lana, baina askotan oso bakarrik ikusten dituzu. Eta askotan, matxakatuta. Zailtasun handiekin gauzak beste modu batean planteatzeko. Garrantzitsua da jende horri balioa ematea. Denen artean saretuz gero, lor dezakegu zirrikituak zabaltzea.

### **Etzi.pm etorkizunari begira jartzen den ataria da. Nola ikusten duzu euskal antzerkigintza eta Euskal Herria bera hamar urte barru?**

Nola ikusi nahiko nukeen esan dezaket. Uste dut interesgarria izango litzatekeela egun euskal antzerkigintzan bizitzen ari garena ez izatea zerbait koiunturala, eta sortzea baldintzak egonkortzeko. Gazteei eta konpainiei babesa ematea. Eta euskal antzerkigintza agente garrantzitsu bilakatzea, kultur politketan gauzak planteatzeko, baita ikuspegi aldaketa batzuk ere. Prekarietatearen inguruko kontzientzia ere zabaltzea. Hamar urte barru horrek guztiak fruitu batzuk ematea espero dut. Euskal Herria bere osotasunean hartuta, bat nator elkarbizitzaren ideiarekin, asko dago sendatzeko. Baina aldi berean posizionatzeko gaitasuna galdu gabe. Jende askori entzuten diot behar dela eztanda bat. Eztanda berri bat, eta izan daiteke kulturala. Pizte bat. Egon behar da energia baten berpizte bat, ahalduntze bat beste toki batetik. Behar da beste zerbait.

### **Hamar urte barru elkarrizketa egiten badugu, non nahiko zenuke egin eta zer gairen inguruan?**

Gustatuko litzaidake hemen berriro egitea, Oiartzunen, afari baten bueltan. Eta gustatuko litzaidake elkarrizketa izatea aldatu diren gauzen inguruan eta egitea balantze historiko bat.





## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)

IDAZTEN